

# EUSKAL IDAZLE BIREN EUNGARREN URTEA

Eun urte beteko zituen aurten euskal idazle emakume andi bik.  
Gure erriaren gorespen eta maitasunaren duin egin ziranak biak.  
Azpeitia'tar Julene, "Arritokieta", eta Mujika'tar Errobustene "Tene".  
Zumaiarra bata, debarra bestea.  
Biak gaztetatik euskerari lotuak.

Julene, 1920 ordurako agertu zan, eskoletako irakasletza kalera zabalduaz, erri guztierengan urreratzen. Or kaleetan "Osasuna, Merketza ta Yanaritzaz" izendun liburu erakusgarria.

"Tene Mujika, 1923 urtean Euskeltzale Bazkuna'k Zornotza'n eraturako leiaketa batera agertzen ausartzen da bere maitasunez igortzitako idazki eta samurtasuna darioen olerkiekin. Or gero, saria irabazi eta bereala kalean bere liburua: "Miren Itziar'i Idazkiak eta Olerkiak".

Julene 1980'n il zan, eta Bizkai'ko auzo ikastoletan bere lan eraginkorraren gain, or utzi zitun "Irakurri maite", "Azeri jauna", "Amandriaren altsoan", "Umien adiskidea" eta abar.

"Tene" 1981'ko Iraila'ren 1'n il zan. Eta or geratu ziran aldizkarietan bere olerkiak, bai eta bere antzerki eta ipuiñak, euretariko batzuk leiaketa ez-berdiñetan sari nausiak irabaziak. Eta beragaitik euskaltzale jator batek esana: "Tene" bezelako amar idazlekin, euskerak eginen du bidea".

EUSKERAZAINTZA'k gogoan euki nai izan ditu euskal idazle ta euskeraren bultzagille izan ziran andre andi biok.



*Robustiana Mújica, "Tene"*



*Juliana de Azpeitia (Azpeitia'tar Julene)*